

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
1 positibo berri	1.601 hildako EAEn	1 positibo berri	518 hildako
2.280 positibo guztira*	13 UCIn EAEn	5.353 positibo guztira	6 UCIn
*Hernanin 63 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 17.693. Naf: 8.295	

Ardo beltzaren zaporea gogora ekartzen duen 'Anne' sagardoa aurkeztu berri du Gartziategik

Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Arantxa Tapia sailburua eta Xabier Urdangarin alkatea, bi sagardo gama berrien dastaketan parte hartzeko. 700 metrotara bildutako sagarrarekin egina dagoenak, '700' du deitura.

ASTIGARRAGA SAGARDOA

Astehenean aurkeztu zuen Gartziategi sagardotegiak, Koronabirusaren krisiaren aurretik sortutako sagardo sorta berria, sagardotegian bertan. Berrikuntzarik bitxiena Anne da, ardo beltzaren zaporea gogora ekartzen duen sagardoa.

Ekitaldian beste sagardo mota berri bat ere aurkeztu zuten, 700 izenekoa; eta biak dastatu ahal izan zituzten, aurkezpenean parte hartu zutenek. Horien artean egon ziren, besteak beste, Gartziategiko kideak, Euskal Sagardoako kideak, bezeroak, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua eta Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea.

Aurkeztutako hiru sagardo-

ak daude Euskal Sagardoa deituraren barruan, eta lehenengo aldiz, Euskal Herriko sagarrarekin ekoiztu du Gartziategik, sagardoaren %100a.

Bertako produktuaren apustua egin du sagardotegiak, Bittor Lizeagak aipatu zuen bezala: «orain hiru urte Euskal Sagardoa sortu zenean igerilekura salto egin genuen eta bertako sagarrarekin produkzio guztia egiteko erabakia hartu genuen. 2019ko uztan gai izan gara hori lortzeko Euskal Sagardoa deituraren barruan».

Horretara bakarrik ez dira mugatu Gartziategin, eta Nere eta Ander seme-alaben lanari esker, beste pauso bat eman du sagardotegiak. Gama desberdinetako beste hiru sagardo mota sortu dituzte, eta lan horretan, Juan Zubiarrain enologoaren la-



'Anne' eta '700' sagardoak dastatu zituzten bertaratutakoek.

guntza ere azpimarratu zuten.

Hiru produktu horiek aurkeztu zituzten sagardotegian, eta nabarmendu zituzten aipaturiko Anne, eta 700 metrotara bildutako sagarrarekin eginiko 700 sagardoa. Aurkezpenaren ndoren, Mikel Garaizabal sumierrak gidatuta, horien dastaketa egin zuten, sagardotegian bildutako guztiekin.

«Gartziategik erakutsi digu, etorkizuna nolakoa izan behar den»

Bere aldetik, Unai Agirrek, Euskal Sagardoaren koordinatzaileak, azpimarratu zuen Gartziategi aitzindaria izan dela. «Zorionak eman nahi dizkiot Gartziategiri. Azkenaldian bilatzen ari ginen eskailera maila hau jarri digute. Poz handia

eman digu lau urte eta gero aurkeztu duena; sagardo guztia bertako sagarrarekin egiteko apustua, lan handi baten ondorioa delako. Ausarta izan da Gartziategi, eta hori da etorkizuna; gainera, gama desberdina aurkeztuta». Agirrek aipatu zuen, baita ere, protokoloak betetzea ez zela erraza izan. Hiru txandatan egin zen dastaketa. **K**

DYA Gipuzkoak 1.500 esku-hartze baino gehiago egin ditu guztira, konfinamenduaren egunetan

Alarma-egoeran eskaintako zerbitzuen artean, honako hauek nabarmendu dituzte: elikagaiak eta botikak jaso eta banatzea, instalazioak desinfektatzea, COVID-19 testak egitea, eta maskarak eta biserak banatzea, besteak beste.

HERNANI-ASTIGARRAGA OSASUNA

2020ko martxoaren 14an Espainiako Gobernuak alarma-egoera ezarri zuenetik, gaurko egunera bitarteko datuak argitaratu

ditu DYA Gipuzkoak, azken balantze gisa. 200 boluntariok baino gehiagok 40.000 kilometro egin dituzte lurraldean, 1.500 esku-hartze baino gehiago egiteko. Eta hori guztia herritarren

laguntzari eta ekarpeni esker egin ahal izan da.

DYAk bere jarduerak bideratu zuen Gipuzkoako gizartearen zat erabilgarri eta garrantzitsuz izaten jarraitzeko, eta herritarren eskura jarri zituen bere baliabideak eta boluntarioak. Konfinamenduaren lehen egunetatik, bere leloa egoerara egokituz, DYA Gipuzkoak mezu hau zabaldu zuen: *Gelditu zaitetz eta lagunduko dizugu.*

Elkarteak bere material eta

giza baliabide guztiak prestatu zituzten, bere boluntarioek zerbitzu guztiak egin ahal izateko behar bezala hornituta eta babestuta.

Ia hiru hilabete hauetan, DYAk laguntza eskaera eta jarduerak asko egin ditu. Egunean 24 orduz Koordinazio Zentro bat duenez, eskaera eta dei guztiei erantzun die, eta nahiz eta alarma-egoeran eta konfinamenduan egon, egun bakar batean ere ez dio funtzionatzeari utzi.

DYA Gipuzkoak lankidetzaren

tua izan du bere esperientzia eta baliabideak behar izan dituzten erakunde eta GKEekin, herritar guztiei laguntza helarazteko eta beharrei erantzuteko. Besteak beste, DYArekin laguntza eskatu dute Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza, Babes Zibilak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Errenteriako Udalak, Oiartzungo Udalak, Euskotrenek, Dbusek, Suhiltzaileek, Botikarien Elkargoak, Caritasek edo Elikagaien Bankuak. **K**



AKELENEA
Erregegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldosta Ana

Astehenetik ostiralera menua, bertan eta eramateko.
Arratsaldeetan terraza 20:30ak arte.

Larunbata eguerdi eta gaua irekita.
Txotxa ere bai.

Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

JOXE MARI
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Astehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzean, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN



Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

olai zola
Sagardotegia

Sardotegiko menua

Udako menua
Txorizua sagardotan
Ensalada
Kostilla
Etxeko postrea
Sagardoa eta ardoa
22 €

San Joanetan
24 eta 25 eguerdi eta gauean irekia

Osinaga oizoo, 38. Hernani Tel. 943 33 67 31 / 690 696 484

GAUR Eguna giro lainotsuarekin hasiko da, eta baliteke han-hemenka euri pixka bat egitea. Arratsaldean artu eta argitzen joango da. **Min.14° / Max.19°**

BIHAR Egurdetik aurrera lainoak gutxitzen joango dira. Haizea aldakor ibiliko da goizean, eta egurdetik aurrera iparraldeko haizea nagusituko da, baina xuabe. **Min.14° / Max.19°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EHKO
EUSKARA ELKARTEA

GIJONKO FORU ALDUNDIA

GIJONKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Konfinamenduan itxi behar izan duten negozioentzat hobariak

Ura, saneamendua eta hondakinen bilketa zerbitzuen tasetan onartu ditu Udalak.

HERNANI UDALA

COVID-19 gaitzak sortutako osasun krisiaren ondorioz, zenbait enpresa, merkataritza eta ostalaritza negoziok itxi behar izan dute. Horrek kalte ekonomiko haundiak ekarri dizkie. Eta Hernaniko Udalak, ondorio horiek arindu nahian, ur, saneamendua eta hondakinen bilketa zerbitzuen tasetan hobariak edo bonifikazioak onartu berri ditu.

Eremu industrialean, hondakinen bilketan hobariak COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz haien lokala derrigor itxi izan behar duten jarduerentzat, aurtengo lehenengo hiruhilabeteko tasaren %100eko hobaria aplikatuko da.

Bigarren hiruhilabeteko tasa ez zaie kobratuko lokalei Derrigor itxi behar izan duten horien kasuan, aurtengo bigarren hiruhilabeteko tasa ez zaie kobratuko. Era berean, ur hornidura eta estolderia zerbitzuan, hondakinen bilketaren tasarekin bezala, krisiaren ondorioz derrigor itxi behar izan dutenek izango dute %100eko bonifikazioa. Kasu



Hondakinen bilketan hobariak izango dira eremu industrialean

honetan, aurtengo lehen lau hilabetekoa da kobratuko ez zaie. Tasen kasuetan, onuradunek ez dituzte tasa horiek ordaindu beharko; eta dagoeneko ordaindu badituzte, itzuli egingo zaie.

340 negoziari eragingo diete hobariak, eta 52.000 euroko eragina izango dute Ur ordainagiritan ordaindu beharreko BEZak eta ur kano-

nak, aldiz, ez dute hobaririk edo bonifikaziorik jasoko. Beraz, ordaindu egin behar dira, Udalak ezin dituelako hobaritu.

Hernaniko Udalak azaldu duenez, tasetan aplikatutako hobari horiek herriko 340 negoziari eragingo diela kalkulatu da, eta 52.000 euro inguruko eragina izango du 2020 urteko Udal Aurrekontuan (tasetan jasoko ez duen kopurua). **K**

Txomiñene pelotalekua zabalik, modu librean erabiltzeko

Frontoia erreserbatzeko aukera dago, Udalaren webguneko aplikazioaren bidez. Frontoiko aldagelak itxita egongo dira oraindik.

ASTIGARRAGA UDALA

Asteartetik, segurtasun neurriak betez, Txomiñene pelotalekua modu librean erabili daiteke, eta frontoia erreserbatzeko aukera dago, Astigarragako Udalaren webguneko aplikazioaren bidez. Pelotalekuaren erabilera baimentzen den arren, aldagelak itxita egongo direla nabarmendu du Udalak. Bestetik, Hernaniko igerileku estalia ere erabilgarri dago Astigarragako kiroldegiko bazkideentzat.

Segurtasunerako, neurriak Hauek dira pelotalekua erabiltzeko

ko bete beharreko segurtasun neurriak: beste erabiltzaileekin bi metroko segurtasun tartea mantendu, eta ezin bada, maskarilla jarri; ez partekatu jokorako erabiltzen den materiala, ezta ur-botila ere; doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo erabili eta botatzeko zapi batekin; ez ukitu aurpegia, sudurra eta begiak; gainazal komunak ukitzea saihestu; COVID-19rekin zertikuzia izan dezakeen sintomarik izanez gero, gelditu etxean eta jarri harremanetan osasun zerbitzuekin; eta bete erakunde ofizialek emandako gainontze-

ko osasun-neurriak.

Erreserba ordutegian erabili Erreserba bat dutenek, beren txandari dagokion ordutegiaren barruan erabili ahal izango dute instalazioa, eta horretarako lehen tasuna izango dute.

Erreserbak egin behar dira, Udalak horretarako jarri duen aplikazioaren bidez.

Hernaniko igerilekua, aukeran Bestalde, Astigarragako kiroldegiko bazkide direnentzat, Hernaniko igerileku estalia erabilgarri dago berriz ere.

Ordutegia honakoa da: astelehentik ostiralera, igerileku handia 06:45-20:00, eta igerileku txikia 06:45-21:15; larunbategian, 09:00-19:45; eta igande eta jaiegunetan 08:30 13:00. **K**

Bilera gaur, eta posta bidezko botoa emateko informazio gunea zabalik

HERNANI PODEMOS AHAL DUGU

Podemos Hernani Ahal Duguren zirkuluak gaur, 19:00etan, bilera antolatu du egoitzan (Elkano kalea, 1, behea), ondorengo gaiak jorratzeko: Udal Taldearen gaiak, hauteskunde-kanpaina, Udal idazkari nagusiaren hautagaitzak, gizarte-mugimenduei buruzko informazioa, Euskaraldia, Eraso matxistak eta galde-eskeak. Podemosetik jendea bileretara gerturatzea animatu nahi dute; bilerak beti dira irekiak, eta ez da beharrezkoa Podemos Ahal Duguren parte izatea bileretara joateko. Bestetik, Hernaniko herritarrei jakinarazi nahi die egoitza irekita egongo dela posta bidezko botoaren berri emateko, gaurtik uztailaren 2ra arte, asteazkenetan 10:00etatik 12:00etara eta ostegunetan 18:00etatik 20:00etara.

Begira sarearen 13garren bilera antolatu du Emakundek gaurko, 'Zoom' bidez

URUMEA EMAKUNDE

Begira Sarearen 13garren bilera, aurten bertualki Zoom bidez eramango da aurrera, gaur, Emakundek antolatuta. Jardunaldia 10:30etan hasiko da, eta 2020rako lan plangintzaren aurkezpena egingo dute Itziar Cámara eta Ángel Rodríguez. 11:00etan *Sexu-indarkeria: non jarri arreta?* hitzaldia eskainiko du Norma Vázquezek, eta 11:40etan komunikabideekin lan egiteko espazioa zabalduko dute. Jardunaldia egurdiko 12:00etan bukatuko da.

Liburutegi Ibiltaria, bihar bisitan

ARANO-GOIZUETA LIBURUTEGIA

Aste honetan jarriko da martxan Goizueta eta Aranora dijoan Liburutegi Ibiltaria. Aresora egingen du bisita gaur, eta bihar izanen da Goizueta eta Aranoren txanda, 11:30etan eta 12:30etan.

Kilimak taldeak finala, ekainaren 25ean

HERNANI MUSIKA

Hernaniko Kilimak musika taldea Gaztea Maketa Lehiaketako finalean ariko da ekainaren 25ean, ostegunetan. Finalera sartzea lortu du taldeak, eta Victoria Eugeniako final handian joko dute, 20:00etatik aurrera. Lau dira finalistak, eta hiru irabazlea aukeratu dute epaimahaikideak. Kilimakek, egun bat lehenago eskainiko du kontzertua, Hernaniko kiroldegiko pistan.

Hitzaldia gaur, KZguneaTIC bidez

URUMEA KZ GUNEA

KZgunea, Youtubeko KZguneaTIC kanalean, zuzeneko hitzaldiak ematen ari da, eta gaur 18:00etatik 19:00etara *Streaming plataformak ezagutu* saioa eskainiko du, gaztelaniaz. Sarrera libre da eta ez da izenik eman behar; interneteko konexioa izatea, nahikoa.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**